

JEITSIERA IKUSGARRIA PARROKIKO 3 ZENBAKIA DUEN KANPAIA KONPONTZERA ERAMATEKO



JEITSIERA OPERAZIOAREN ONDOREN, KANPAIA LURREAN, KAMIOIRA IGO AURRETIK X.SAGARZAZU

Irailaren 26ko operazioak hiru orduetik gora iraun zuen eta garabi haundi baten bitartez 700 kilotik gorako pieza jaso eta Ezkio-Itsasoko konponketa tailerrera

Asko hitz egin dugu azken hilabeteetan Jasokunde eta Sagarrondoko parroki elizako kanpaiei buruz, hauetako batzuek aspaldian bizi duten kontserbazio egoera arazoan harira.

Horiek ekiditeko asmoz eta gure hiriko ondarearen zati diren aldetik, Arma Plaza fundazioak mikrobabesen bidez kanpaiak konpontzera eramateko diru-bilketa egin du azken asteetan.

Horien fruitua izan da parrokiko 3 zenbakia duen 700 kilotik gorako kanpaia konpontzera eramatea.

Irailaren 26an jeitsi zuten kanpaia bere dorretik Fraxkueneko Murruko inguruko lurrera, hiru orduetik gora luzatu

zen operazio ikusgarriarekin. Konponketa Ezkio-Itsasoko tailer batean egiten ari dira dagoeneko, baina aurretik, garabi haundi bat erabili behar izan zuten teknikariek kanpaia osorik eta salbu bere garraio-kamioira sartzeko.

Garabiak ere nahiko lan izan zuen Hiri-gune Historikora sartu eta behar bezala kokatzeko, kanpandorrean pieza bera prestatzen zuten bitartean.

Elizaren inguru guztiak jendez hustu be

EDIFICIO COFADIA
COFADIA EDAIKINA
HONDARRIBIA

VIVIENDAS DE 1, 2, 3 Y 4 HABITACIONES. GARAJES Y TRASTEROS
1, 2, 3 ETA 4 GELATAKO ETXEBIZITZAK. GARAJE ETA TRASTELEKUAK

943 640 298 - 943 635 347

PROMUEVE / SUSTATZAILA:
INVERSIONES ARAHONDE S.L.U.
Bernal Etxepare 18 Bajo-Izda • 20.280 Hondarribia

har izan ziren, garabiarekin kanpaia aire-
ra atera eta honek hormaren bat jo eta
harriak edo erortzearen beldurra ere
bai baitzegoen.

Zorionez, dena ondo joan zen eta poliki
bai, baina oso seguru heldu zen kanpaia
lurrera.

Behetik, adi jarraitu zuten operazioa bai
zenbait hiritarrek, bai Arma Plaza fun-
dazioko arduradunek eta baita komu-
nikabideek ere. Tokikoez gain, ETBk ere
parrokiko kanpaia jeisteko lan hauen
berri eman zuen egun hartan.

Ikusleen artean guk 87 urteko Jose Luis
Etxebeste hondarribiarra harrapatu ge-
nuen. Ikusminez ari zen garabiari eta ho-
nen mugimenduei begira.

Etxebestek, aspaldian, “duela urte asko”,
parrokiko kanpaietako bat, “haundienea-
takoa, ez hauxe bezalako txikia” dorre-
raino igotzeko lanetan parte hartu zuen.

“Hura lau edo bost lagunen artean igo
genuen, soka eta polea soilen laguntza
bakarrarekin. Ikusgarria da orain nola
egiten den antzeko operazioa, zoritxa-
rrez, garabi haundi horiek ez ziren esis-
titzen gure garaietan!”, esaten zuen Jose
Luis Etxebestek.

Parrokiko 3 zenbakia duen kanpaia kon-
pondu eta soldatu egingo dute Ezkio-
Itsasoko tailerrean eta hilabete honetan
zehar berriz ere bere lekura itzuliko du-
tela aurreikusten da.

Honetaz gain, kanpandorrean bertan
egingo dizkiote konponketa lanak 4
zenbakia duen piezari. Dena, Honda-
rribiko pertsona, elkarte eta enpresek
mikrobabes kanpainan erakutsi duten
eskuzabaltasunari esker.



PRESTAKUNTZEN UNE BAT ETA KOMUNIKABIDEEN JARRAIPENA X.SAGARZAZU

aizpea
RESTAURANTE

- Ogitartekoak - pintxoak
- hanburgesak - paellak
- razioak - sandwichak
- entsaladak - platerak

Santiago Kalea, 65 Hondarribia Tel: 636 131 458



Casa Senra
HONDARRIBIA

Establezimendu berria San Pedro, 34.ean

Tel: 943 291 112

Kalitatea, gure izatearen arrazoia